

Isilgauzak

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Gehienek ez dakiten gauza bat da sekretua, dakienak ongi gordetzen duena. Baina ez dago ageriko sekretu bat isil dezakeen sekretariorik, ezta sekretuen legerik ere. Herriko bestak gerra oroitzuz haste-ko ohitura hartu genuen, biziak gauza hagitx ederrak dituelako, baina benetan itsusiak ere bai, eta horiei entzungor egiteak ez ditu desagerrarazten. Izatekotan, xuxurlak garrasi bihurtzen ditu.

2018an, 1936ko gerrako ahantziek bota zuten txupinazoa. Udaletxeko bal-koira goititu eta plazan bildutako jen-detzari mintzatzeko aski indar eta umore izan zuten hiru adineko pertso-nak, altxamendu militarren ondorio-ak beren larrutan bizi eta aitzinera

egin zutenak, azken urteetan ziren, eta justu-justu baina aitortza hori jaso ahal izan zuten. Aurten, ezusteko testi-gantza bat izan dugu besten hasierako altxaferoaren aitzinetik udaletxean den ahantzien eskulturaren ondoan egindako ekitaldian. 1939 eta 1941 bi-tartean Beran izan zen ehungarren ba-tailoiko Domingo Mengual Segarra presoaren alaba, Vicenta Mengual, eta Rafa Val biloba etorri dira espres Valen-tziako El Cavanyaletik. Beran izan ziren 2.357 presoetako bat izan zen Domingo Mengual eta, alabak kontatu duenez, gatibu egon arren herriaren oroitzapen ona gorde zuen. Familiak ingurua eza-gutzeko aukera izan du, eta Udalaren esku utzi ditu aitaren dokumentuak.

Ministroen Kontseilu espainolak onartutako sekretuen legeak, frankis-moaren ondorengo lehenak –aurre-koa 1968koa zen– dokumentuak des-klasifikatzeko epeak ezarri ditu, baina luzeegiak dira: oraindik 2050 inguru-ra arte itxaron beharko dela diote. Bi-tartean, eskala txikian, tokian toki, is-torioak ezagutzen ari gara eta poliki-poliki isil-gordeak argitzen ari dira. Ahanzturaren aurkako sekretua herri xehearen oroimena da. Urte lu-zetako errepresiopean ongi gordetako oroitzapenak dira, plazaratzeko unea-ren zain egon direnak. Momentu hori ailegatzen denean bilakatzen dira isil-gauzak kontakizun, albiste, eta Histo-ria. •

Piratak

**Xabier Mikel
Errekondo**

Gaur zortzi hasiko dira Donos-tiako jaiak. 2022ko Aste Nagu-sia. Ene iritziz, euskal hiribu-ruetako jai nagusien artean kaxkarrenak eta zozoenak, Piratek sala-tzen duten moduan “izozkia, su artifi-zialak eta hotelen hiriko jaiak”. Halere, ez diezaiozun iruzurrik egin geure bu-ruari eta aitor dezagun gainerako hiri-buruek ere menu hirukoitz horretatik sobera jaten dutela, nahiz nabarmena den gainerako hirietako jai nagusiek aparteko kale giroa eskaintzen dutela.

Iruñean peñek, Bilbon konpartsek, Gasteizen blusek ehunka ekitaldi anto-

latzen dituzte programa ofizialetik at eta guztiak kalean, kaleak girotuz edo-norentzat. Hainbeste, non gauez zein egunez inguratzea nahikoa duzun giro-aren eta erritmo biziaren magian ha-rrapatua sentitzeko giharrak eta burua aske joaten uzteraino.

Nago herriko jaiak kaleak hartu egin behar dituztela, jendeak kalean bizi be-har dituela jaiak, kaleetan eta kalera begira dauden taberna eta txosnetan, esaterako; izozkiek hor ez dute leku-rik... Pandemiaren ondoren Donostian inoiz baino beharrezkoagoak dira Pira-tak, herritarrengan sortu zuten ilusioa

berpizteko eta indartzeko, luze baino lehen hiria piratez blaitzeraino, soilik piraten ekintzek bailezakete izozkiz eta su hutsez betetako jai artifizialak abor-datu eta anekdotiko bilakatu kaleetako kolore eta giro bizien dardarak irentsi-ta.

Argi, beraz, Donostia ponpoxoan On-tziola zaharra aurrera doa eta piratez betetako Kofradietan antolatuta hiri-burua aldatzera doaz... pirata maltzu-rrak.

Jaiak ez dira zertan denak antzekoak izan, baina zabiltzan tokian zabiltzala izan pirata! •